

GIPUZKOA ETA EUROPAR BATASUNA



38. Informazio Buletina 2009ko Urria





NABARMENDU BEHARREKOA

Pobreziaren aurkako borroka, europako herritarren lehentasuna

Europako herritarren % 89a bere herrialdeko pobreziari aurre egiteko gobernuek premiazko ekimenak abiatzearen alde dago. Horrela, pobrezia murrizteko arduradun nagusitzat jotzen dituzte nazioetako gobernuek, eta neurri txikiagoan, herritarrak beraiek, Europar Batasuna eta eskualdeetako eta tokiko gobernuek.

Europar Batasunean gutxi gorabehera sei pertsonatik batek dagokion Estatuaren batez besteko familia-errentaren % 60a baino diru-sarrera baxuagoak ditu, eta beraz, pobrezia egoeran daudela uler daiteke. Eta oztopo handiak dituzte enplegua, hezkuntza, etxebizitza, gizarte zerbitzuak eta finantza-zerbitzuak eskuratzeko orduan.

Bestalde, Batasunean bizi diren lau pertsonetatik ia hiruk uste du bere herrialdean pobrezia oso hedatuta dagoela, Hungaria, Bulgaria eta Errumanian duen eragina azpimarratuz. Aitzitik, pobreziaren pertzepzioa txikia da Danimarkan, Zipren eta Suedian.

Pobrezia arriskurik handiena langabezian dauden herritarrek, adinekoek eta hezkuntza-maila baxuena dutenek dute.

Datu horiek irailean Eurobarometroak egindako inkestari dagozkio.

Informazio gehiago:

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/09/1585&format=HTML&aged=0&language=ES&guiLanguage=en>

Inkestaren emaitza nagusiak (ingelesez):

http://ec.europa.eu/public_opinion/archives/ebs/ebs_321_en.pdf



Finantza publikoen epe luzeko jasangarritasuna

“Finantza publikoen epe luzeko jasangarritasuna ekonomiaren susperraldiaren testuinguruan” gaiari buruz Batzordeak egindako Txostenaren ondorioek azaltzen dutenez, gaur egun epe luzerako dauden aurreikuspenek adierazten dute finantza publikoen saneatzearen inguruan anbizio handiko ahaleginik egin ezean eta egiturazko erreformak egin ezean, datozen hamarkadetan zor-interesen eta pentsio-gastuen, nola osasun-arreta eta iraupen luzeko zainketen gastuen igoera jasanezina izango da.

Testuinguru honetan, gastu publikoaren igoera eta zorra modu iraunkorrean igotzeko aurreikuspena, susperraldi jasangarri etengabe eta iraunkorrerako eta hazkunde ekonomiko orekaturako oztopo izango dira.

Halaber, atzeraldari aurre egingo dion politika fiskal hedakor emankorra, epe luzean finantza publikoen jasangarritasunaren helburuarekin bateraezina dela adierazten du. Konfiantza areagotu eta eskaria laguntzera bideratutako neurri fiskalak soilik eraginkorrak izango dira baldin eta merkatuek eta iritzi publikoak aldi baterako eta epe luzeko jasangarritasunarekin bateragarriak diren neurri gisa hartzen badituzte.

Hori horrela izan ezean, hau da, eragile ekonomikoek zorra etengabe hedatzea espero badute, aurrekontu-laguntzak eraginkortasuna galduko du eta kalterako izan daiteke, bereziki krisiaren puntu gorena gainditu eta susperraldi-fasea abiatu ondoren.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/economy_finance/publications/publication15996_es.pdf

Kontsumoarekiko konfiantza hobetu da Gipuzkoan, Europar Batasunean baino neurri txikiagoan bada ere

Gipuzkoako kontsumitzaileen konfiantza 73 punturaino iritsi zen urteko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoei dagokienez 5 puntu berreskuratuz. Izan ere, aurreko hiruhilekoetan gutxieneko maila historikoetan egonkortu egin zen, EAEko eta Nafarroako Aurrezki Kutxen Federazioak landutako informazioaren arabera.

Hala ere, hobekuntza hau Europar Batasunari dagokiona baino xumeagoa izan da, Batasunean 81eko balioa erdietsi baitzuten, urte honetan barrena hazkunde nabarmenak izanez, esaterako, zazpi puntukoa azken hiruhilekoan (Europako Batzordearen datuak).

Aurreko aldiekin alderatuta konfiantza mailak oso txikian izan arren, urte honetan barrena izandako joera aldaketak ekonomiaren bilakaeraren aurreikuspenen inguruko ziurgabetasuna eta hauskortasuna murrizten dituzte, bai Gipuzkoan eta baita Europar Batasun osoan ere.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/economy_finance/indicators/business_consumer_surveys/2009/bcs_2009_10_en.pdf

http://www.fcavn.es/Castellano/Publicaciones/Coyuntura_economica_del_consumidor/Coyuntura_economica_del_consumidor.asp



Europako Batzordeak bere agintaldia bukatu du

Urriaren 31n egungo Europako Batzordearen agintaldia bukatuko da. Ekainean Europako Parlamentuko hauteskundeak ospatu ondoren, irailaren 16an Parlamentuak José Manuel Barroso Europako Batzordeko Presidente berriz ere aukeratzea onetsi zuen. Bozketan 382 aldeko boto, 219 aurkako eta 117 abstentzio izan ziren.

Komisarioen Elkargoaren izendapena Batzordearen (eta Estatu Kideen) proposamenez eta Batzordeko Presidentearen adostasunez egiten da, eta Parlamentuari dagokio komisarioen Elkargoa bere osotasunean onetsi edo baztertzea.

Erabaki hori hartu aurretik, izendatutako komisario bakoitzak gai europarren inguruko gaitasun eta dedikazioa ebaluatzen duten parlamentuko batzordeen aurrean erantzun behar du.

Informazio gehiago:

http://www.europarl.europa.eu/news/public/story_page/008-63220-299-10-44-901-20091026STO63219-2009-26-10-2009/default_es.htm





KOHESIO-POLITIKA

Open Days ospakizuna

Urriaren 5etik 8ra bitartean Open Days-en, Hiri eta Eskualdeen Europako Astearen, zazpigarren edizioa ospatu zen. Bertan, 125 mintegi, tailer, eztabaida eta erakusketa egin ziren; 6.000 baino pertsona gehiagok eta 33 herrialdetako 213 eskualdek eta hirik parte hartu zuten.

Irekierako saioan, "Munduko krisia, eskualdeetako erantzunak?" gaiari buruzko eztabaidaren baitan, Patxi López lehendakariak parte hartu zuen, Dresdeko alkatearekin, Eskualdeetako Lantaldeko lehendakariarekin eta Eskualde Politikako Europako komisarioarekin batera.

Patxi Lópezek adierazi zuen iraganean Euskal Herria beti ekonomia globalizatuaren eskakizunetara egokitzen saiatu dela, eta horri esker, gaur egun ekonomia-krisiaren erronkei aurre egiteko egoera hobean dagoela. Eta elkartasunean oinarritutako herrialde-eredu berri baten eta produktibitatean oinarritutako ekonomia-eredu berri baten alde egin zuen; halaber, energia-eredu berri bat eta zerga-sistema justu eta mailakatu berri bat lantzeko beharra defendatu zituen.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/conferences/od2009/index.cfm?nmenu=1&sub=200

Aurkezpenak

http://ec.europa.eu/regional_policy/conferences/od2009/presentation_frame.cfm?nmenu=333

Bideoak

http://ec.europa.eu/regional_policy/conferences/od2009/videos.cfm?nmenu=17&sub=73&smenu=73

Egitura-funtsen ondorengo ebaluazioa

Erkidegoko kohesio-politikaren ondorengo ebaluazioaren lehen emaitzak argitaratu dira, hain zuzen ere, 2000-2006 programazio-aldiari dagozkionak.

Alde batetik, emaitza horiek genero berdintasunaren eta aldaketa demografikoaren gaineko EGEFren laguntzen eraginari buruzkoak dira; eta bestetik, laguntza horiek landa-eremuaren gainean duten eraginkortasunari buruzkoak.

Aldaketa demografiko eta genero berdintasunari dagokionez, tokiko dimentsioa garrantzitsua bada ere, maila anitzeko jarduketak beharrezkoak direla adierazten da. Halaber, genero berdintasunari heltzeko ad-hoc neurriak gehitzea beharrezkotzat jotzen da, ikuspegi horizontala ez baita nahikoa; eta bestalde, eskualde- eta herri-eremuetan kudeaketa-gaitasun egokien beharra.

Informazio gehiago (ingelesez):

Genero berdintasuna eta aldaketa demografikoa

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/evaluation/expost2006/wp7_en.htm

Landa-garapena

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/evaluation/expost2006/wp9_en.htm



Sudoe Programa: proiektuen bigarren deialdia

Sudoe Programaren (Europako Hego-mendebaldeko Esparrua 2007-2013) Jarraipen Batzordea azaroaren 13an bilduko da bigarren deialdia abian jartzea erabakitzeko. Deialdia Programaren 1 eta 2 lehentasunen (Berrikuntza eta Ingurumena) esparruaren baitan lehentasunezkoak diren gai batzuetan oinarritzea proposatuko zaio Batzordeari.

Informazio gehiago:

<http://www.interreg-sudoe.eu/ESP>





KOMUNITATEKO POLITIKAK

Hiriko mugikortasunaren ekintza-plana

Txostenaren arabera, hiriko mugikortasunak gero eta gehiago kezkatzen ditu herritarrak. Europarren artean, hamarretik bederatzik uste du bizi den inguruneko zirkulazioaren egoera hobetu beharko litzatekeela. Joan-etorrietarako aukeratzen dugun garraibideak etorkizuneko hiriko garapenari ez ezik, herritarren eta enpresen ongizate ekonomikoari eragingo dio. Halaber, funtsezkoa izango da klima-aldaketaren aurka borrokan EBren estrategia osoaren arrakasta lortzeko, «20-20-20» helburua erdiesteko eta kohesioa sustatzeko.

Liburu Berdea aurkeztu ondoren egindako kontsultan oinarrituz, Ekintza-planak hiriko mugikortasunari buruz EBren ekimenentzako esparru koherente bat ezartzen du, aldi berean, subsidiarotasunaren printzipioa errespetatuz.

Sei gai eta hogeitauri ditu. Honako hauek dira sei gaiak: Politika integratuak sustatzea, herritarren beharrei erantzutea, hiriko garraioa ekologizatzea, finantzazioa areagotzea, esperientziak eta ezagutzak partekatzea eta hiriko mugikortasuna optimizatzea.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0490:FIN:ES:PDF>

Itsas politika integratua: orientabide estrategikoak

Batzordearen Txostenak, azken bi urtetan Europar Batasunaren itsas politika integratuak erdietsitako lorpenen analisiarekin batera, epe ertainera eta luzera oinarritako helburuak (ingurumenaren babesa eta hazkundera eta ongizatea) erdiesteko sei orientabide estrategiko definitzen ditu.

Honako hauek dira sei orientabideak: Itsas gobernantza sartzeko (sektoreen arteko lankidetzak eta interesa duten aldean kontsulta egitura eraginkorrek sortzea, itsasoan eragina duten politika sektorial guztien sinergiak aprobetxatzeko), zeharkako tresna politikoak sortzea, itsas jardueren mugak zehaztea jasangarritasuna bermatzeko, eskualdeetako itsas arroi buruzko estrategiak lantzea, itsas politika integratuaren nazioarteko dimentsioa sustatzea, eta hazkunde ekonomiko, enplegu eta berrikuntza jasangarriaren enfasi berria.

Informazio gehiago

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0540:FIN:ES:PDF>



Handitzearen estrategia eta erronka nagusiak (2009-2010)

Txosten honetan handitze-prozesuan murgilduta dauden herrialdeek egindako aurrerakuntzak eta aurre egin behar dieten oinarriko erronkak azaltzen dira. Eta hurrengo urteko ahaleginak gidatu eta laguntzeko Batzordeak hartutako planteamenduaren zirriborroa egiten du.

Halaber, Batzordeak Kosovorako ibilbide bat aurkeztu du, Batasunean sartzeko aurrerapenak bultzatzeko xedearekin eta eskualdeari buruzko Europako ikuspegiarekin bat etorritz.

Ondorio eta gomendioen artean, atxikimendu-prozesua hedatze-herrialdeetan erreforma politiko eta ekonomikoen pizgarri indartsua dela eta Europako bakea eta egonkortasuna indartzen dituela azpimarratzen da. Halaber, Batasunak adostutako printzipio eta baldintzen eta hedatzeari buruzko adostasun berriaren gainean hedatze-prozesuaren dinamika mantentzeko interesa du.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0533:FIN:ES:PDF>





e-LIBURUTEGIA

EU Bookshop, Europako liburutegi digitala

EU Bookshop liburutegi digitalak 1952az geroztik Argitalpen-bulegoak Batasuneko instituzio, erakunde eta bestelako agentzietarako argitaratutako argitalpen guztiak eskaintzen ditu.

Liburutegi elektronikoak 14 milioi orrialde baino gehiago ditu, pdf formatuan, webgunerako optimizatua eta publikoari dohainik zabalik. Liburutegi honetan, argitalpen historikoen 12 milioi orrialde eskaneatu eta argitalpen berrien 2 milioi orrialde inguru daude.

Informazio gehiago:

http://www.bookshop.europa.eu/eubookshop/index.action?request_locale=ES

Ekonomia-krisia Europan: zergatiak, ondorioak eta erantzunak

Batzordearen Ekonomia eta Finantza Gaietarako Zuzendaritzaren agiriak adierazten duenez, ekonomia europarra 1930az geroztik egon den atzeraldi okerrean murgilduta dago, eta berriki hobekuntza-zantzuak agertu badira ere, susperraldiak zalantzazkoa eta hauskorra izaten jarraitzen du.

Irteera-estrategia koordinatu baten beharra azpimarratzen du, zerga-pizgarriekin batera, finantza-sektoreari eta gehien kaltetutako industriei laguntza barne dituen.

Irteera-estrategiak, halaber, Europak karbono isurtze baxuetara bideratutako iraultzaren mugan bere lekua mantentzea bermatu beharko du, energia berriztagarrietan, karbono isurtze baxuko teknologietan eta azpiegitura "berdeetan" inbertsioak eginez.

Informazio gehiago (ingeleza):

http://ec.europa.eu/economy_finance/focuson/focuson15979_en.htm



Europar Batasunaren ikerketa eta teknologia garapenaren inguruko jardueri buruzko 2008 urteko txostena

Abian jarri zenetik, Lisboako Estrategiaren oinarrietako bat da ikerketa eta industria europarraren lehiakortasuna sostengatzen du.

Europak ikerketan inbertsio gehiago egiten ez baditu eta lehen lerroko ikerketa-sistema bat garatzen ez badu, etorkizuneko belaunaldiak garesti ordainduko dute eta gure ongizatea arriskuan egongo da.

I+Gean egindako inbertsioen estatistikek EBren eta AEBen arteko desfase etengabea adierazten dute. Honela, Europar Batasuneko I+Gren intentsitatea geratu egin da BPGren % 1,84ean, Ameriketako Estatu Batuen % 2,61aren oso atzetik.

Ekonomia- eta finantza-krisiaren testuinguruan, I+Gan inbertsio publikoa areagotzen jarraitzea interesgarria da, I+G pribatuaren aurrekontuak presio handia jasaten ari diren une honetan eragin kontraziklikoa izan dezake eta. Era berean, politiken arduradunek I+Gan inbertsio pribatua ez saihestea eta I+Gan gastu publikoak eragindako lehiakortasunaren faltsutzea ahalik eta txikiena izan dadin bermatu behar dute.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0558:FIN:ES:PDF>

Lan-baldintzak Europar Batasunean

Biztanle europar langileen gehiengoak (% 60) munduko ekonomia-krisiak lan-baldintzak kaltetuko dituela aurreikusten du, bereziki segurtasunari eta osasunari dagokienean. Eta Estatu kideen gehiengo esanguratsu batek (% 75) uste du osasun txarra, neurri batean, egiten duten lanaren ondorio dela.

Laneko segurtasun eta osasunaren aurreko jarrerari dagokienez, generoen arteko desberdintasunak agertzen ditu iritzi-azterketak. Galdetutako gizonezkoen iritziak, soldata (% 61) eta laneko segurtasuna (% 55) faktore nagusiak dira lanpostu berri bat onartzeko orduan; zenbateko horiek baxuagoak dira galdetutako emakumezkoen artean (% 53 eta % 51, hurrenez hurren). Aitzitik, emakumezkoek (% 26) gizonezkoek (% 19) garrantzi handiagoa ematen diote laneko ordutegiari.

Gainera, galdetutako pertsonen artean, azken urteotan osasun- eta segurtasun-baldintzak hobetu direla uste dutenen artean, gizonezkoen kopurua (% 62) emakumezkoena (% 52) baino handiagoa da. Halaber, gizonezkoek (% 71) segurtasunari eta osasunari dagokionez emakumezkoek (% 61) baino informazio hobea dutela uste dute. Informazio hau Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziak egindako iritzi-azterketa bati dagokio.

Informazio gehiago:

http://osha.europa.eu/es/statistics/eu-poll/index_html-es



Europar Batasuneko industria ekologikoaren lehiakortasuna

Azterketak EBren industria ekologikoaren lehiakortasunaren analisia egiten du, eko-industria bultzatzeko industria-lehiakortasunaren politikak kontuan hartu behar dituen faktoreak identifikatze aldera.

Eta esparruko baldintzen lehiakortasuna eta industria-lehiakortasunerako garrantzitsuenak diren merkatuko balizko hutsuneak identifikatzen ditu, sektorearen hornikuntza-katearen analisia azpimarratuz.

Informazio gehiago (ingeleza):

1. atala:

http://ec.europa.eu/enterprise/newsroom/cf/document.cfm?action=display&doc_id=5416&userservice_id=1&request.id=0

2. atala:

http://ec.europa.eu/enterprise/newsroom/cf/document.cfm?action=display&doc_id=5417&userservice_id=1&request.id=0



ADIERAZLEAK

Salgaien itsas garraioa ekonomia-krisiak kaltetuta

Itsas garraioari buruz eskuragarri dauden hiruhileko estatistiken emaitza nagusiek 2008an garraiatutako salgaien geldialdia eta 2009an atzeraldi-aurreikuspenak islatzen dituzte.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, 2009ko lehen hiruhilekoan % 5eko murrizketa balioesten du Eurostatek. 2008ko azken hiruhilekoari begira, agiriak Europako portu nagusietan manipulaturako salgaiak jasotzen ditu, karga mota eta eremu geografikoen arabera.

Informazio gehiago (ingelese):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-QA-09-041/EN/KS-QA-09-041-EN.PDF

Etxeetako aurrezki gehieneko historikoetara iritsi da

Urteko bigarren hiruhilekoan, Europar Batasuneko etxeei doitutako aurrezki-tasa eskuragarri dagoen errentaren % 14,4ra iritsi zen, azken hamarkadako gehieneko mailara.

Azken urtean, aurrezki-tasak hazkunde handia izan du, etxeetako bukaerako kontsumoaren moderazioari lotuta.

Urtaroka doitu gabeko terminoetan, 2008ko hirugarren hiruhilekoan (hamarkadako gutxieneko mailak) % 8,6tik % 17,7ra igo da Europako etxeetako aurrezki-tasa.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/2-29102009-AP/EN/2-29102009-AP-EN.PDF

Euskal Herriko egoera eta estatistika

Eusko Ganberak elkarteak egindako txosten hau urteko hirugarren hiruhilekoari buruzkoa da eta bilakaera ekonomikoaren analisia eta adierazle sozioekonomiko desberdinen, Euskal Herrikoak bereziki, nola lurralde historikoen jarraipena jasotzen ditu.

Halaber, Merkataritza Ganberak bi hilero egiten dituzten industria eta merkataritza egoeraren inkesten emaitzak jasotzen ditu.

Informazio gehiago:

<http://camaragipuzkoa.com/secciones/actualidad/noticias-detalle.php?idioma=es&idnoticia=52>